

'JIRAFAREN HIZKUNTZA'

KEB KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA ESKOLAN ONLINE

IKASTAROAREN FITXA

Irakasle funtzioetan askotan garbi ditugu ze helburutara iristea gustatuko litzaigukeen. Aldi berean, ikastetxeko egunerokotasunean harremanez inguruatuta gaude ikasleekin, gurasoekin, lankideekin eta zuzendaritza taldearekin. Sarritan, hezitzaileak gauza bera 100 aldiz esaten dugunaren inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen. Ikasleen zein irakasleen emozioek paper garrantzitsua dute eta hauek kudeatzeko moduak guztiongan eragina izango du. Familiekin kolaborazioa izatea ere amesten dugu eta lankideekin ere tira birak izan ditzakegu.

Gatazkei aurre hartu, gutxitu edo kudeatzeko, ingurune fisiko eta emozional seguru bat sortzea ezinbestekoa izango da, non ikasle zein irakasleen beharrak axola eta zaintzen diren. Modu honetan, ikasleen garuna eta atentzioa beren ikasketetan zuzendu ahalko da. Norberaren eta besteen ongizateaz arduratzen den guneak elkarren errespetu, kolaboraziorako eta gatazken kudeaketarako baldintza egokiak sortzen lagunduko digu.

Komunikazio Ez Bortitzak (Marshall Rosenberg-ek sortu zuen eredua), bizitzarako baliagarria izango zaigun tresna paregabea eskaintzen digu. **Erlazio trebetasunak indartzeko programa** honen bidez, irakasleak norberarekin, ikasleekin eta eskola komunitateko gainontzeko pertsonekin erlazionatzeko abileziak lantzeaz gain, ikasleekin batera ikasten eta praktikatzeko joateko proposamenak izango ditu, gelako dinamikatan txertatzeko.

HELBURUAK

- Besteengana gerturatzen lagunduko digun hitzegiteko eta entzuteko modua ezagutu
- Ziurtasun eta konfiantza gunea sortu
- Irakasle zein ikasleen emozioetan dagoen altxorra deskubritu.
- Gatazken kudeaketarako, mugak jartzeko eta ikasle-irakasleen autoestimua zaintzeko baliabideak eskuratu
- Gelako giroa kudeatzeko eta ikastetxeko erlazioa desberdinak zaintzeko (guraso, irakasle, ikasle, lankide) aspektuak ezagutu.
- Komunikazio eta erlazio trebetasunak ikasleei transmititu eta beraiekin praktikatzeko proposamenak eskuratu

EDUKIAK

- Adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, gatazken kudeaketa
- Errurik gabeko gunek sortzeko trebetasuna
- Gertatzen zaiguna argitzeko trebetasuna
- Amorruren kudeaketarako trebetasuna (gurea eta ikasleena)
- Mugak jartzeko trebetasuna
- Ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna, gustoko ez diren egoeratan
- Ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna, gustoko diren egoeratan
- Guraso bilerak kudeatzeko trebetasuna
- Feedback-a eman eta jasotzeko trebetasuna
- Gure autoestimua elikatzeko trebetasuna

METODOLOGIA

- Online formatua:
 - ONLINE SAIOA: galdera eta egoeren lanketarako (90´), hilean behin urritik ekainera
 - BIDEO ETA AUDIO: oinarrizko edukiak (2 ordu) + 9 bideo eta 9 audio hilean behin urritik ekainera
- Materialak: Dokumentazioa + fitxak + KEB gida
- Egunak: Urriak 27, Azaroak 24, Abenduak 22, Urtarrilak 19, Otsailak 23, Martxoak 23, Apirilak 6, Maiatzak 11, Ekainak 8

NORI ZUZENDUA

Irakasle/hezitzaileei

IRAKASLEA

Nerea Mendizabal, psikopedagogo, gizarte hezitzailea, haur masajeko hezitzailea eta Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzailea

www.nreamendizabal.eus

